

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

2319

53/2022 EBAZPENA, maiatzaren 24koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez xedatzen baita honako erabaki hau argitaratzea: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Administrazioako zerbitzu laguntzaileen 2022rako Enplegu Publikoaren Eskaintza onartzekoa eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko estatutupeko langile finko izateko lanpostuak Euskadiko Ekonomia eta Enplegua Suspertzeko 2020-2024 aldirako Berpiztu Programan sartzekoa.

Gobernu Kontseiluak, 2022ko maiatzaren 24an egindako bilkuran, erabaki bat hartu zuen, zeinaren bidez onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Administrazioako zerbitzu laguntzaileen 2022rako Enplegu Publikoaren Eskaintza, eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko estatutupeko langile finko izateko lanpostuak sartzeko baitira Euskadiko Ekonomia eta Enplegua Suspertzeko 2020-2024 aldirako Berpiztu Programan. Horrenbestez, behar bezalako publikotasuna emateko, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara ematea honako erabaki hau: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Administrazioako zerbitzu laguntzaileen 2022rako Enplegu Publikoaren Eskaintza onartzekoa eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko estatutupeko langile finko izateko lanpostuak Euskadiko Ekonomia eta Enplegua suspertzeko 2020-2024 aldirako Berpiztu Programan sartzekoa, zeina eranskinean jaso baita.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko maiatzaren 24a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
JON IÑAKI URBINA GARCÍA DE VICUÑA.

ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO
HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN MAIATZAREN 24KO 53/2022 EBAZPENARENA

ERABAKIA, ZEINAREN BIDEZ ONARTZEN BAITA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN,
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HEZKUNTZA ADMINISTRAZIOAREN ETA
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO SEGURTASUN ADMINISTRAZIOKO ZERBITZU
LAGUNTZAILEEN 2022RAKO ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZA, ETA
OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ESTATUTUPEKO LANGILE FINKO
IZATEKO LANPOSTUAK EUSKADIKO EKONOMIA ETA ENPLEGUA SUSPERTZEKO
2020-2024 ALDIRAKO BERPIZTU PROGRAMAN SARTZEN BAITIRA

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 23.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, lege hori aldatzen duen azaroaren 7ko 16/1997 Legearen idazkeran, «Administrazio Publiko bakoitzeko langileekin bete ezin diren giza baliabideak, hots, aurrekontu-izendapena dutenak, enplegu publikorako eskaintzaz beteko dira».

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 70.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, «Giza baliabideen beharrianak daudenean, eta, horretarako aurrekontuko diru-izendapena egonda, langile berriak sartzeari beharrezko denean, enplegu publikoaren eskaintza egin behar da, edo langile-beharrianak betetzeko antzeko beste kudeaketa-tresnaren bat erabili behar da; horretarako, beharrezkoa izango da sortutako plaza horiek betetzeko hautaketa-prozesuetarako deialdia egitea».

Arau horietan ezarritakoa betetzeko, erabaki honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Administrazioaren zerbitzu laguntzaileen enplegu publikoaren eskaintza onartzen da. Aurrekontu-zuzkidura duten plaza hutsak sartu dira eskaintza horretan, hain zuzen ere zerbitzu publikoen funtzionamendu egokirako geroago betetzeko utzi ezin direnak.

Guztira, 1.686 plaza eskaintzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan; horietatik, 1.554 plaza karrerako funtzionarioei dagozkie, eta, 132 plaza, berriz, langile lan-kontratudunei.

Eskaintako plaza guztietatik, plaza hutsen % 7 gordeko da desgaitasuna duten pertsonentzat (halakotzat joko dira Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bateginaren 4. artikuluko 2. apartatuan zehaztutakoak; testu bategin hori azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen); halako pertsonen, betiere, hautaketa-prozesuak gainditu behar dituzte eta egiaztatu desgaitasunen bat dutela lanpostuaren zereginetan aritzeko bateragarria dena. Hartara, pixkana-pixkana lortu nahi da Administrazio Publiko bakoitzean, guztira, % 2 izatea langile horiek. Desgaitasuna dutenentzat gordetako plazen banaketa, bai eta horien kopurua ere, hautaketa-prozesuen deialdietan zehaztuko da.

Hezkuntza Administrazioari dagokionez, 3.040 plazako enplegu publikoaren eskaintza onartu da. Horietatik, 2.955 plaza hainbat irakasle-kidegori dagozkie, eta, 85 plaza, berriz, hainbat lan-kategoriari.

Segurtasun Administrazioaren zerbitzu laguntzaileen enplegu publikoaren eskaintzak 315 plaza ditu.

Bestalde, Osasuneko sailburuak Gobernu Kontseiluari jakinarazi dio zer plaza sartuko dituen Osakidetza Administrazio Kontseiluak 2022ko enplegu publikoaren eskaintzan. Enplegu publikoaren eskaintza horretan, kategoria profesional desberdinetako 3.723 plaza sartuko dira.

Eusko Jaurlaritzaren enplegua egonkortzeko politikak betetzea dute helburu aipatutako enplegu publikoaren eskaintza horiek, eta, guztira, 8.764 plaza sartzen dira, enplegu publikoko plaza gisa, Euskadiko ekonomia eta enplegua suspertzeko 2020-2024ko Berpiztu Programan.

Horrenbestez, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren proposamenez, eta Jaur-laritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 18.l) artikulua betez, erabaki hau hartu du Gobernu Kontseiluak:

ERABAKIA

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen 2022ko enplegu publikoaren eskaintza onartzea. Erabaki honen I. eranskinean zehaztutako plaza hutsak eskaintzen dira.

Bigarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren 2022ko enplegu publikoaren eskaintza onartzea. Erabaki honen II. eranskinean zehaztutako plaza hutsak eskaintzen dira.

Hirugarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Administrazioaren zerbitzu laguntzaileen 2022ko enplegu publikoaren eskaintza onartzea. Erabaki honen III. eranskinean zehaztutako plaza hutsak eskaintzen dira.

Laugarrena.– Kasuan kasuko deialdietan zehaztuko dira eskainitako plazak lortzeko prozedurak eta betekizunak, bai eta desgaitasuna dutenentzat gordetako plazen banaketa ere.

Bosgarrena.– Euskadiko ekonomia eta enplegua suspertzeko 2020-2024ko Berpiztu Programara biltzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren estatutupeko langile finko izateko plazak, zeinak IV. eranskinean adierazten baitira.

Seigarrena.– Erabaki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

I. ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ETA HAREN
ERAKUNDE AUTONOMOEN ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZA

A) Funtzionarioak. Txanda irekia.

A TALDEA

– A1 azpitaldea.

Administrazioko goi mailako kidegoa:

– Administrazioko Eskala	235
--------------------------	-----

Fakultatiboen goi mailako kidegoa:

– Telekomunikazioetako Eskala	1
– Meatzeetako Eskala	1
– Itsasontzietako Eskala	3
– Kartografiako Eskala	3
– Industriako Eskala	45
– Medikuntzako Eskala	25
– Farmaziako Eskala	16
– Eskala Juridikoa	74
– Ekonomia eta Enpresako Eskala	76
– Informazio Sistemetak Eskala	10
– Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazioko Eskala	30
– Ingurumeneko Eskala	46
– Kultura Administrazioko Eskala	13
– Kiroletako Eskala	1
– Nekazaritza eta Abeltzaintza Sektoreko Eskala	13
– Arreta Sozioraboreko Eskala	283
– Estatistikako eta Datu Analisisetako Eskala	13
– Larrialdietako eta Meteorologiako Eskala	12
– Hizkuntza Normalizazioko Eskala	6
– Prentsa eta Argitalpenetako Eskala	10
– Lan Arriskuen Prebentzioko Eskala	53
– Giza Baliabideetako eta Prestakuntzako Eskala	15
– Osasun Publikoko eta Epidemiologiako Eskala	16
– Laborategiko Eskala	5

– A2 Azpitaldea.

Administrazio kudeaketako kidegoa:

– Administrazio Kudeaketako Eskala	42
------------------------------------	----

Kidego teknikoa:

– Eraikingintza, Hirigintza eta Lurralde Antolamenduko Eskala	2
– Industriako Eskala	3
– Azpiegituretako Eskala	4
– Ingurumeneko Eskala	6
– Hizkuntza Normalizazioko Eskala	1
– Lan Arriskuen Prebentzioko Eskala	10
– Laborategiko Eskala	3
– Nekazaritza eta Abeltzaintza Sektoreko Eskala	13
– Arreta Soziolaboraleko Eskala	3

Horrez gain, A taldeko 256 plaza eskainiko dira, eta horiek kidegoka eta eskalaka zehaztuko dira, 27. eta 28. destino-osagarrien mailetako lanpostuak betetzeko lehiaketa behin betiko esleitu ondoren, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu baten bidez. Agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

B TALDEA

Laguntzaile teknikoen kidegoa:

– Obren eta Instalazioen Delineazioko Eskala	9
– Kudeaketa Informatikako Eskala	20
– Laborategiko eta Osasun eta Ingurumen Ikuskaritzako Eskala	18
– Hazien Eskala	2
– Arrantzako Eskala	6

C TALDEA

C1 azpitaldea.

Administrarien kidegoa:

– Administrarien Eskala	146
-------------------------	-----

E TALDEA

– Laguntzako Langileen Talde Profesionala	5
---	---

B) Langile lan-kontratudunak.

Sukaldeko laguntzailea	1
Arte grafikoetako laguntzailea	3
Autopsietako laguntzailea	9
Sukalde eta jantokiko laguntzailea	6
Laborategiko laguntzailea	1
Lantegiko laguntzailea	1
Ikuztegiko laguntzailea	2
Kaizainburua	2
Sukaldaria	6
Saileko gidaria	4
Kontserbatzailea	1
Koordinatzailea	2
Hezitzailea	3
Sukalde eta jantokiko arduraduna	4
Kaizaina	2
Garbiketa-burua	1
Garbitzailea	5
Laborategiko garbitzailea	6
Mekanikaria	3
Mekanikari gainbegiralea	2
Medikua (Dopinaren Aurkako Euskal Agentzia)	1
Praktiketako monitorea	1
Peoia	4
Peritu judiziala	4
EJko administrazioko korporazio-sarea kudeatu eta mantentzeko arduraduna	1
Sukaldeko arduraduna	1
Itsasontziko arduraduna	1
Inprentako arduraduna	1
Mantentze-lanetako arduraduna	2
Histopatologiako teknikaria	4
Laborategiko teknikaria	3
Laborategiko teknikari fakultatiboa	2
Mantentze-lanetako teknikaria	13
Baliabide orokorren teknikaria (Bilbao)	1
Baliabide orokorren teknikaria (Donostia)	1
Baliabide orokorren teknikaria (Lakua)	2
Gizarte-langilea	11
Itzultzaile-interpretea	5
Gaueko jagolea	2
Espetxeetako gizarte-langilea	7
Elektrikaria	1

II. ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HEZKUNTZA ADMINISTRAZIOAREN ENPLEGU
PUBLIKOAREN ESKAINTZA

A) Funtzionarioak.

Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoa	1.580
Arte Plastikoetako eta Diseinuko Irakasleen Kidegoa	8
Maisu-maistren Kidegoa	1.116
Musikako eta Arte Eszenikoetako Irakasleen Kidegoa	26
Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen Kidegoa	44
Lanbide Heziketako Sektore Bereziakotako Irakasle Espezialisten Kidegoa	1.181

B) Langile lan-kontratudunak.

Hezkuntza Laguntzako Espezialistak	57
Gizarte-langilea	3
Sukaldea	16
Garbiketa	9

III. ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO SEGURTASUN ADMINISTRAZIOAREN ZERBITZU
LAGUNTZAILEEN ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZA

Langile lan-kontratudunak	315
---------------------------	-----

IV. ERANSKINA

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUAN ESKAINTZEN DEN PLAZA-KOPURUA

Estatutupeko langile finkoak. Txanda irekia	3.723
---	-------